

NAFARROAKO IPARRALDEKO EUSKARA MANKOMUNITATEA
EUSKARA ZERBITZUA

NAFARROAKO IPARRALDEKO EUSKARA MANKOMUNITATEA
BATZAR OROKORRA

2025eko abenduaren 17an arratsaldeko 18:30etan Leitzako Udaletxeko Batzar Aretoan, Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateko Batzar Orokorra bildu da, Aintzane Arraiza Nafarroko Iparraldeko Euskara Mankomunitateko lehendakaritzapean.

BERTARATUAK

Leire Echeverria Ultzamako Udaleko ordezkaria
Josu Larretxea Ultzamako Udaleko ordezkaria
Joseba Artzeluts Larraungo Udaleko ordezkaria
Xabat Ilarregi, Leitzako Udaleko ordezkaria
Juan M^a Irastorza, Lekunberrriko Udaleko ordezkaria
Anne Oyarzun, Odietako Udaleko ordezkaria
Asier Arsuaga, Araitzko Udaleko ordezkaria
Igor Otermin, Beteluko Udaleko ordezkaria
Maidier Amantegi , Leitzako Udaleko ordezkaria
Patxi Xabier Iturriotz, Imozko Udaleko ordezkaria
.Aresoko Udaleko ordezkaria

IDAZKARIA: Lucia Beloqui Iriarte.

GAI ZERRENDA

1.- Azken batzarreko akta onartzea.

Lehendakariak aipatzen du deialdiarekin batera bidali zela aurreko batzarreko akta, 2025eko azaroaren 12an egindako batzarreko akta, eragozpenen bat dagoen galdetzen du eta ez dagoenez bildutakoek aho batez onartzen dute bildutakoek, denen baiezko bozkarekin

2.- Euskaltegien proposamena, egoera zaurgarrian daudenen matrikula aurreratzea.

Lehendakariak azaltzen du, azaroaren bukaeran bilera izan zuela eskualdeko bi euskaltegien ordezkariekin, AEK eta IKA- euskaltegiekin. Bileran ikasturte hasierako matrikulako emaitzen informazioa eman zuten bi entitateek eta mahai gainean utzi mankomunitateak hala erabakitzeko proposamen bat. Kontua da bi AEK eta bai IKA-k badituztela egoera zaurgarrian dauden ikasleak, askotan atzerritarrak izaten dira eta matrikula ordaintzeko arazoak izaten dituzte eta kasu batzuetan ez dute Euskarabideko laguntza izaten paperik gabekoak izanik ezin dituztelako lortu Euskarabideak eskatzen dituen agiriak. Beste ikasturte batzuetan udalekin sinatu dituzte hitzarmenak IKArekin kasuan Betelu eta Basaburuko udalekin, udalek matrikula ikasleei aurreratzeko helburuarekin eta ondoren hauek Euskarabideko laguntza eskuratzen dutenean matrikulagatik jasotakoa bueltatzen dute. Gauz bera mankomunitatetik egitea da euskaltegien proposamena. Bileran horretan adierazi zuten 4 5 ikasle izaten dituztela euskaltegi bakoitzak egoera honetan eskualdean osotara. Kontutan hartu behar da ere 2025-2026. Ikasturtean Nafar Gobernuak A1 eta A2 ikastaroak doakoak izateko egitasmoa martxan jarriko duela eta hortaz mankomunitateari eskualdeko ikasleak egiten zioten diru laguntza eskaera bertan behera geldituko dela eta hortaz aurrekontuaren partida horretan soberakina egongo legoke aipatutako gastuari aurre egin ahal izateko.

Zenbat diru izango den jakiteko proposamena batzarrean baloratzeko, Larraungo Euskara Teknikariak prestatu du gastuen taula. Eta hau da bere txostenean ondorioztatu duena:

“Datorren ikasturtean, egoera horretan, zenbat ikasle egonen den ez dakigu, aurtan 10 ikasle inguru izan dira: 5 ikasle AEK-n eta beste 5 ikasle IKA-n.

2025-2026 ikasturteko matrikula prezioak aintzat hartuta, ikasle horien matrikulak aurreratzeko ekarriko duen gastua honako hau litzateke: 4.335,00 €

AEK-ko ikasleak: 5 x 492,00 € = 2.460,00 €

IKA-ko ikasleak: 5 x 375,00 € = 1.875,00 €

Aukera legoke urria-abendua tarteari dagokion gastua, soilik, aurreratzeko: 1.220,00 € (120,00 euro ikasle bakoitzeko).

Noski, hau guztia, datorren ikasturtean egoera horretan egonen den ikasle kopurua aurtengo berbera bada.”

Lehendakariak proposamen hau luzatzen die bildutakoei, hots udala eta mankomunitatearekin lankidetzan hitzarmena sinatzea eta mankomunitatik dirua aurreratzeko. Aipatzen du ere aurrerapen hori egiteko ikasleek betebeharren bat izan behar duten, hots gizarte zerbitzuen txostena egoera zaurgarrian daudela egiaztatzeko, errentaren aitorpena gutxieneko sarrerak dituztela justifikatzeko edo azken egoera bezala eta kontutan hartuta euskaltegiek dakitela ikasleak egoera zuzenean, hainbat urtetan haiekin egoten direlarik batzuk, euskaltegiak esatea zeintzuk diren aurrerapen hori behar duten ikasleak.

Hori kontutan hartuz, bildutakoek eztabaidatzen dute betebeharen horien inguruan kontutan hartuta ikasle batzuk kanpotarrak izanik ere ez direla gizarte zerbitzuetara joaten eta beste batzuetan egoera zaurgarriak eginik ez dituzte gutxieneko sarrerak errentaren aitorpena egiteko ere. Baina beti ere azken hitza euskaltegiek izanen dute, haiek adieraziko ahal diote mankomunitateari ze ikasleekin sinatuko duten hitzarmena.

Lehendakariak aipatzen du ere urtero aztertu ahal dela ikasle kopurua eta honek dakartzat betebeharrak ekonomikoak. Hau ere ontzat ematen dute bildutakoek.

Hortaz bildutakoek euskaltegien proposamena onartzen dute aho batez, kontutan hartuta urteko aztertuko dela ikasle kopurua eta aurrerapenaren kopuru eskaera, aurrekontura egokitzeko.

3.- 2026ko aurrekontua. Behin betiko onespena.

Lehendakariak gogoratzen du azaroaren 12ko mankomunitateko batzarrak hasiera batez onartu zuela 2026. Urteko aurrekontua. Aurreko batzorde horretan zintzilik gelditu zen bertso eskolen ekimenean sortu ziren bi talde gehigarrien gastua kudeatzea. Bai Leitzako udalak bai Ultzamako udalak onartu ditu bi taldean eta eskualde mailan gastu hori kudeatzea. Bestetik ere zintzilik gelditu zen ere ordenagailuan aldaketaren aurrekontua. Adobe, baimenak eta beste kenduta aurrekontua 1000 euro inguru jeitsi da.

Aurrekontuaren hasierako onespene hori, Azaroaren 24ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hortaz 1990/6 Nafarroako Tokiko Administrazioaren 274. Artikulua jarraituz non adierazten den “ 1. Udalbatzak aurrekontua hasieran onetsi ondoren, idazkaritzan jarriko da jendaurrean hamabost egun balioduneko epean, aldezturik iragarki-oholean eta iragarki-oholean iragarrita, herritarrek edo interesdunek espedienteaz aztertu eta egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak egin ahal izan ditzaten. <Boletín Oficial de Navarra>

2. Erreklamazioak aurkeztu badira, osoko bilkurak esanbidezko erabakia hartuko du erreklamazioak ebazteko eta aurrekontua behin betiko onartzeko.

Erreklamaziorik aurkeztu ez bada, aurrekontua behin betiko onartu dela ulertuko da, aurreko zenbakian adierazitako jendaurreko erakustaldia igaro ondoren. “
Ultzamaldekoko aurrekontuan aldaketa batzuk txertatu ditu bertako euskara teknikariak, eskualdean dute eragina bakarrik eta eskualdekoko ordezkariak onartuak dira.

Bildutakoek aho batez eta aldeko 12 bozkekin, ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

Behin betikoz onartzea 2026. Urteko aurrekontua, behin behineko gastuak 411.841 eurokoak izanik.

Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agindu eta modu zehaztuan kapituluak 2026. Urteko aurrekontuan argitaratu ere.

4.- 2026ko txantilla organikoa. Hasierako onespena.

Aurrekontuarekin batera ere txantilla organikoa onartu behar da urtero. 1990/6 Nafarroako Tokiko Administrazioaren Foru Legearen 235 artikulua jarraituz.
Mankomunitateko txantilla 2026. Ekitaldirako ez da aldatzen 2025ean onartutakoarekin.

Hasierako onespen honetan ez dira agertzen Leitzaldeko euskara teknikari berriaren datuak, behin betikorako aldiz bai, oraindik inork ez duelako baiezkota eman ordezkapenari.

Hau da 2026. Urterako plantilla organikoa hortaz:

ERANSKINA

2026KO TXANTILLA ORGANIKOA

LAN-KONTRATADUN FINKOAK

KARGUA	MAILA	SARBIDEA	ZENB.	LANPOSTUAREN OSAGARRIA	BALDINTZA BERARIAZKOA
Euskara teknikaria	B	L-L	2	%35	C1 nahitaezkoa
Euskara teknikaria	B	Merezimendu bidezko prozedura	1	%35	C 1 nahitaezkoa

2. ERANSKINA

2026KO LANGILEEN ZERRENDA

LAN-KONTRATUDUN FINKOAK

IZEN-ABIZENAK	MAILA	ANTZINATASUNA	LANPOSTUA	EGOERA
David Anaut Peña	B	1992/09/25	Euskara teknikaria	Eszedentzian
Beraza Elizondo Ainhoa	B	1999/08/01	Euskara teknikaria	Jardunean
Felix Altzelai Iriarte	B	2003/10/06	Euskara teknikaria	Erretiro partzialaean

BEHIN-BEHINEKO LAN-KONTRATUDUNAK

IZEN-ABIZENAK	MAILA	ANTZINATASUNA	LANPOSTUA
Kristina Urrutia Apezetxea	B	2023/06/17	Euskara teknikaria

IZEN-ABIZENAK	MAILA	ANTZINATASUNA	LANPOSTUA
Ariane Usarbarrena Ekiza	B	2024/11/18	Euskara teknikaria
Idazkaria: Lucia Belouqui Iriarte. A maila. 3,72 lanpostuaren osagarria.	A	2016/11/16	Idazkaria

Hortaz eta goian aipatutako 1990/6 Nafarroako Tokiko Administrazioen Foru Legearen 235 artikulua jarraituz, non arautzen den

“Toki-erakundeek dagokien plantilla organikoan sartuko dituzte plazen eta lanpostuen ezaugarriak, baita Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen eta hura garatzeko araudiaren aplikazioari dagozkionak ere, eta horietara egokitu beharko dira langile horiek hornitzeko prozedurak.

2. Toki-entitateen plantilla organikoak urtero onartu behar dira aurrekontua onestean, eta onesteko eta hura aldatzeko, aurrekontua indarrean dagoen bitartean, aurrekontua onesteko ezarritako izapideak bete beharko dira, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzekoa barne.

3. Erakunde asoziatibo bat edo hitzarmen bat egotearen ondorioz, hainbat toki-erakundetan lan egiten duten langileak daudenean, langile horiek organikoki mendeko duten erakundeko plantillan soilik sartu beharko dira, eta egoera horren berri eman beharko da zerbitzuak ematen dituzten gainerako erakundeetako plantilla organikoetan.

4. Toki-erakundeek plantillaren eta lanpostu-zerrenden kopia bana bidaliko diote Foru Komunitateko Administrazioari, lanpostuak betetzen dituzten langileak barne, behin betiko onartzen direnetik hilabeteko epean.”

Bildutakoek aho batez eta baiezk 12 bozkekin hasiera batez onartzen dute Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateko 2026. Urterako txantilla organikoa eta erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agintzen dute 15 eguneko epean izapidetzeko eta dagokionari alegazioak jartzeko epea irekiaz.

Gai zerrendatik kanpo aztergai dagoen beste gai bat dagoela azaltzen du lehendakariak, Atarrabiako udalak Nafarroako Euskara Teknikarien ordezkapenak kudeatzeko ardura Burlatako udalari pasatu behar dio eta hortaz erabaki beharra dago kudeaketa hori Burlatako udalaren gain uztea eta hori arautuko duen hitzarmena onartzea ere. Bildutakoek aho batez onartzen dute aipatutako gaia zerrendan sartzea aztertua eta onartua izan dadin.

Euskara Teknikarien ordezkapenen kudeaketa, Burlatako Udala.

Lehendakariak aipatu bezala adierazten du egun euskara teknikarien ordezkapen zerrenda Atarrabiako udalak kudeatzen duela baina hemendik aurrera Burlatako udalak izapidetuko du lan hori, hortaz eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11. artikuluan eta 47-49 artikuluen arabera, Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateak haren esku utzi behar du prozesu horiek egiteko lana eta horretarako hitzarmen proposamena bat luzatu diete toki entitateei lehendakariak bildutakoei irakurtzen diena.

Hau ikusita Euskara teknikariak aldi baterako kontratatzeke zerrendak egiteko hautaketa prozesuak kudeatzeko toki entitateen arteko hitzarmen proposamena aztertu ondoren eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11. artikuluan eta 47-49 artikuluen arabera.

Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateko ordezkariak aho batez eta baieztatu 12 bozkekin, ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

1. Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateko onartzea Burladako Udalari egindako kudeaketa-gomendioa bideratzen duen hitzarmena, euskara teknikarien funtzioak betetzeko izangaien hautaprobak egiteko eta zerrenda kudeatzeko deialdia egiteko, erakunde sinatzaileei sor dakizkiekeen beharrak estaltzeko kontratatu ditzaten.

2. Ahalmena ematea Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateko lehendakaria den Aintzane Arraiza Begiristaini, haren izenean eta ordezkartzan aipatutako hitzarmena sina dezan.

3. Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11. artikuluan aurreikusitakoaren arabera

4.- Erabaki hau Burlatako udalari jakinaraztea.

5.-Lehendakariaren ebazpenen berri ematea.

Ez dago ebazpen berririk aurreko batzarretik lehendakariak onartua.

7- Oharrak eta berriemateak.

Lehendakariak adierazten du Ultzamaldeko euskara teknikari lanpostura aurkezteko epea abenduaren 29an bukatzen dela eta 5 pertsonen izena eman dutela orain arte.

9.- Eskariak eta galderak

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeke ez dagoenez eta arratsaldeko 19:35 direnean bilera amaitutzat ematen du lehendakariak, eta idazkariak hala ziurtatzen du.

